

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKUSENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ZERBITZUEN URTARRILAREN 25EKO 5/2012 FORU DEKRETUAREN ALDAKETA PROIEKTUARI BURUZ

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, lege edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua landu aurretik, kontsulta publikoa egin beharko da dagokion Administrazio eskumendunaren web atariaren bitartez, landu beharreko arauak eragingo dioten subjektu edo erakunderik adierazgarrienen iritzia biltzeko, bereziki honako alderdi hauen inguruan:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu beharreko arazoak.
- b) Onarpenaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Araugintza arloan zein araugintzaz kanpo egon daitezkeen ordezeko konponbideak.

Oraingo agiri honen bitartez, erantzuna eman nahi zaie gai horiei, Nafarroako Foru Komunitateko Ikusentzunezko Komunikazio Zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretuaren aldaketa proiektua landu aurreko kontsulta publikorako oinarritzat finkatuz, arauaren jasotzaileak izan daitezkeen pertsonak eta herritarrek oro har parte hartzeko eta horri buruzko ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenaren bitartez konpondu beharreko arazoak

Nafarroako Gobernuak ikusentzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko arautegi propioa onartu zuen 2012ko urtarrilean, bi urte lehenago, Ikusentzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren bitartez onarturiko oinarritzko arautegia garatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko ikusentzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretua zazpi urtez indarrean izan ondoren, foru araua honako lau gai hauen inguruan eguneratu behar dela egiaztatu da:

- irabazi-asmorik gabeko ikusentzunezko zerbitzuak sustatzea.
- euskarazko ikusentzunezko zerbitzuak sustatzea.
- udal titulartasuna duten ikusentzunezko zerbitzuak arautzea.
- erabiltzeek parte hartzea Nafarroako Gobernuak emandako ikusentzunezko lizentzien operadoreek emititutako edukien kontrolean.

Halaber, gomendagarria da Foru Dekretuan erabilitako hizkuntza berrikustea inklusiboa izan dadin.

b) Onarpenaren beharra eta egokitasuna

b.1. Irabazi-asmorik gabeko ikusentzunezko zerbitzuak

Aipaturiko 5/2012 Foru Dekretuaren 24. artikulua araberá, irabazi-asmorik gabeko ikusentzunezko zerbitzuen lizentziak banatzeko, nahitaezkoa zen Estatuko Administrazio Orokorra aurretik horretarako domeinu irradi-elektiko berria gaitzea, eta baldintza hau 2010eko oinarrizko arautegian ere jasota zegoen, nahiz eta orain arte bete ez den eta datozen urteotan betezeko aurreikuspenik ez dagoen.

Bestela esanda, oinarrizko arautegiak zein foru garapenak komunitate eremuko irabazi-asmorik gabeko ikusentzunezko zerbitzuen figura sortu dute, baina ez dira eraginkorrak izan lege aurreikuspen hau gauzatzeko.

Nafarroaren kasuan, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako irradi bidezko komunikazio zerbitzuetarako lizentzien eskaria errealitate bete da. Nafarroako Gobernuak irradi lizentziak banatzeko lehiaketa deitu zuen 2017ko abuztuan, Iruñean irabazi-asmorik gabeko irradiendako lizentzien erreserba aurreikusiz: entitate desberdinen zazpi eskaintza aurkeztu ziren. Hala ere, zenbait hilabete geroago, urte bereko azaroaren 22an, Nafarroako Gobernuak aintzat hartu zuen operadore komertzial batek aurkeztutako errekurtoa, eta indarrik gabe utzi zuen aipaturiko lizentzien erreserba, ez baitzuen legegintza arloko babesik 5/2012 Foru Dekretuan.

Arlo honetan, komenigarria litzateke foru araua malgutzera, ikusentzunezko zerbitzu mota honen lege barruko emisioak ahalbidetuko lituzketen lizentziak erreserbatu ahal izateko, Nafarroak erabilgarri duen esleipen irradi-elektikoaren barnean; une honetan, irradiak baizik ez dira, telebistaren arloan ez baitago eskaerarik.

b.2. Euskarazko ikusentzunezko zerbitzuak sustatzea

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 27.1. artikulua aurreikusi duenez, "Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute", eta horren harira, Nafarroako Gobernuak babes materiala emango dio euskarak komunikabideetan duen presentzia horri.

Ikusentzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorren 5. artikuluan aurreikusita dagoenez, "hizkuntza propioa duten autonomia-erkidegoek arau gehigarriak onartu ahal izango dituzte beren eskumen-eremuko ikus-entzunezko

komunikazio zerbitzuetarako, beren hizkuntza propioan eginiko ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko”.

Ondorioz, ikusentzunezko komunikazio zerbitzuak garatzen dituen foru arauari euskara dagokion esparruan sustatu eta bultzatzeko eginkizuna eman behar zaio, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean ezarritako zonifikazioen arabera.

Indarrean dagoen 5/2012 Foru Dekretuari jarraiki, “euskarazko programazioaren emisioa” ikusentzunezko lizentziak banatzeko lehiaketerara aurkezten diren proiektuak ebaluatzeko sei irizpideetako bat baizik ez da, eta formulazio honek ez du euskarazko komunikabideen presentziarik bermatzen Foru Komunitateko eremu euskaldunean ere.

b.3. Toki entitateen ikusentzunezko komunikazio zerbitzu publikoak

Oinarrizko arauak (7/2010 Legea), 40.2 eta 43.1. artikuluetan, ikusentzunezko lizentziak emateko modua arautzen due toki entitateei.

Nafarroak duela 25 urte baino gehiago arautu zituen udal irratiak, gaurdaino indargabetu ez den abenduaren 21eko 431/1992 Foru Dekretuaren onarpenaz. Hartan ezarritako kontzesio administratiboen sistema 2010ean onarturiko ikusentzunezko zerbitzuei buruzko oinarrizko arautegiak deuseztatu die toki entitateei. Gainera, foru arau honek ikusentzunezko zerbitzua zuzenean ematera behartzen ditu toki entitateak, zerbitzua zeharka kudeatzeko aukera baztertuz, nahiz eta oinarrizko arautegian aukera hori ikusentzunezko komunikazio zerbitzu publikoetarako aurreikusita dagoen. Halaber, ez du aintzat hartzen toki entitateek, bakarka zein era amankomunatuan, telebista digitaleko zerbitzu publikoak bultzatzeko aukerarik izan dezaten.

b.4. Erabiltzaileek edukien kontrolean parte hartzea

Egun indarrean dagoen foru arauaren 38. artikuluan, erabiltzaileek Nafarroako Gobernuaren ikusentzunezko lizentzia duten komunikabideek emitituriko edukien kontrolean izan dezaketen parte hartzea erregulatu da, Audientzia Defendatzeko Bulegoaren zerbitzua ezartzera behartuz, arreta hori emateko bide administratibo gisa.

Hala ere, bildutako esperientziak argi utzi du ez dela beharrezkoa arauan finkaturikoa bezain kanal espezifiko ezartzea herritarren parte-hartzea bideratzeko, izan ere, Nafarroako Gobernuak herritarren arretarako eskema orokarren barruan artatzen ahal da, geroztik ikusentzunezko zerbitzuei buruzko eskuduntza duen unitateak tramita dezan.

c) Arauaren helburuak

Aipatu denez, arau honen helburuak dira, alde batetik, Nafarroari ikusentzunezko eskaintza pluralagoa izateko aukera erraztuko dion arau-aldaketa egitea, irabazi-asmorik gabeko komunitate-irradi berriak txertatzeko dagoen lege aurreikuspena bideratuz, toki entitateek (mankomunitateak eta udalak) sustaturiko operadoreak gehituz eta eremu euskaldunetan eta mistoan euskarazko operadoreak egonen direla bermatuz.

Bestetik, foru eskuduntzako ikusentzunezko sektoreari buruzko eskubideak baliarazi nahi dituzten herritarrentzako arreta erraztu eta estandarizatzea.

d) Araugintza arloan zein araugintzaz kanpo egon daitezkeen ordezkoko konponbideak.

Zehaztutako konponbide nagusia, 5/2012 Foru Dekretua aldatu eta udal irradiak arautzen dituen abenduaren 21eko 431/1992 Foru Dekretua indargabetzea da.

Ez da planteatu araugintzaz kanpoko konponbiderik.

Iruñean, 2019ko martxoaren 4an